

Diru-sarrera iturriak

Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zure bezeroa eskaintzen diozun produktu/zerbitzuagatik?

Gure bezeroek, baserritarrek, gure produktuak erosi nahi izango dituzte euren animalien osasunaren eta segurtasunaren garrantzia dela eta, horregatik gure prezioak pertsona bakoitzaren beharretara egokituko dira. Prezioak beti egongo dira kalitateari eta zerbitzuari. Gure estrategietako bat prezio malguak eskaintzea izango da erosle guztien beharrak asetzeko. Produktuen balioa zehatz-mehatz azaltzen duten teknikariekin lagunduko dugu, horrela eroslearengan konfiantza eta gure baitan erabateko segurtasuna sortuko dugu.

Zein dira negozio honen diru-sarrera iturri motak?

Negozio honen diru-sarrera nagusiak bi motatakoak dira:

- **Ordainketa bakarra:** Bezeroek txipak eta tabletak behin bakarrik erosten dituzte, kostu finkoa ordainduz. Hau abeltzainek hasierako inbertsio handi baten aurrean erosotasuna izatea ahalbidetzen du.
- **Ordainketa errepikakorrak:** Softwarearengatik eta hileko mantentze-zerbitzuengatik harpidetza sistema bat ezartzea pentsatzen ari gara. Horrek gure bezeroei zerbitzu jarraitu eta kalitate handikoa bermatuko die, eta gure enpresari diru-sarrera egonkorrak sortuko dizkio.

Zein prezio-eredu aplika litezke?

- **Prezio finkoak:** Erosteko unean aplikatuko diren prezio zehatzak eta argiak eskaintzea pentsatzen dugu, erosotasuna eta gardentasuna bermatuz.
- **Prezio dinamikoak:** Bolumen erosketak egiten duten abeltzaintzat deskontuak eskainiko ditugu, baita sustapen bereziak edo garaiko eskaintzak ere, produktuaren eskuragarritasuna sustatzeko.

Nola justifikatuko litzateke hasierako inbertsioa?

Erosketan segurtasun handiagoa bermatzeko, produktu horien erakustaldia eskainiko dugu. Horrez gain, etengabe jasaten dituzten arriskuen aurka borrokatzen duten abeltzain elkarteekin aliatuko gara. Horrela merkatuan dugun presentzia indartuko dugu.

